



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

ZUMAIENA

---

**Ikastetxearen kodea:**

012594

**Data:**

2023(e)ko maiatzaren 30(a)

---





# 1. SARRERA

## Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

### XEDEA

Zumaienan, herri onurarako erakunde garen aldetik, gizarte eraldaketarako hezkuntza eredia garatzea dugu helburu. Herritik abiatuta, izaera guztietako ikasle eta familiekin eta herritar, elkarte, erakunde eta enpresa ezberdinekin elkarlananean dihardugu gure egunerokoan. Garapen jasangarriko helburuak ardatz harturik, kalitatezko hezkuntza euskalduna, ez diskriminatzailea, anitza eta inklusiboa eskaintzen dugu, 0 eta 18 urte arteko ikasleentzat.

Ikaslea ardatz harturik, pertsona burujabeak, akademikoki konpetenteak eta emozioak kudeatzeko gai direnak nahi ditugu, gizartearekiko kritikoak, arduratsuak eta konprometituak diren herritarrak.

Horretarako, irizpide hauetan oinarritzen gara:

- Berrikuntza pedagogikoei irekia dagoen hezkuntza eredia.
- Langileen garapen profesionala
- Eragile eta profesional ezberdinekin elkarlana.
- Familiekin kolaborazio estua, eskola familiaren osagarria izanik.

### IKUSPEGIA

Ikasle guztiei irekia egonik, bidelagun izan nahi dugu ikaslea etorkizunean izango den pertsonaren eraikitze prozesuan. Hauek dira gure ikastetxearen ezaugarri nagusiak:

Ikastetxe hurbila/gertukoa- Konfiantzazko hezkuntza erakunde, ez diskriminatzailea, inklusiboa eta anitza. Ikasle, familia eta herritar guztiengandik hurbila.

Ikastetxe euskalduna, hirueletasunaren sustatzailea- Zumaian errotutako hezkuntza erakunde modura, euskara eta euskal kultura sustatzen laguntzeaz gain euskararen oinarritik hirueletasuna bultzatzen duena.

Hezkuntza proiektu pertsonalizatua eta berritzailea duen Ikastetxea- Neurozientziak emandako emaitzetan oinarrituz landutako metodologia ezberdinekin eta espazioak pedagogiaren zerbitzura egokituz ikasle bakoitzaren premietara moldatzen (eta ez alderantziz) saiatzen den hezkuntza proiektua duen Ikastetxea.

Giza balioetan, hezkidetzan eta bakearen kulturaren oinarritutako Gizarte Eraldaketa bideratzen duen ikastetxea- Balioak pedagogiaren ikuspegitik egunero modu berezian landuz, banakako tratua (tutoretza) eta metodologia berritzaileen bidez, aniztasunetik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredurantz egiten duena eta errespetua, tolerantzia eta empatia sustatuz, Garapen iraunkorrekiko helburuak ardatz harturik, bakearen alde urratsak ematen dituena.

Ikastetxe bizia- Ikastetxe dinamikoa, proposamen, ideia, iritsi eta egiteko era berriei irekia, Zumaiaiko gizarte eta kultura garapenean inplikaturia.

Ikastetxe eraginkorra- Iraunkortasuna bermatuz baliabide, ekipamendu eta instalakuntzen kalitatezko kudeaketa bilatzen duen Ikastetxea.

Pertsonal inplikaturia eta etengabeko prestakuntza duen Ikastetxea- Pertsonalaren artean garapen profesional maximoa lortu eta berrikuntzaren kultura sustatu nahi duen Ikastetxea.

### BALIOAK

- Etengabeko hobekuntzarako gogoia: Alor metodologikoan, teknologikoan, zein kudeaketan, aldaketei edota behar berriei irekiak egotea
- Parte hartzea: Ikastetxeak, bere funtzionamendu egokirako ezarritako dituen eremu edota atal desberdinetan laguntzea, ikastetxeko parte sentituz.
- Komunikazio jarraia: Eguneroko lana erraztuko duen komunikazio aktiboa: informazioaren, sentimenduen eta iritsien trukaketa askea ahalbidetuko duena.
- Ezagutza-jakitea elkarbanatzea: Gaitasun eta ezaguera berriak eskuratzeko interesa eta gero hedatzen jakitea
- Errespetua eta Konfiantza: Lankide bakoitzak dituen eskubideak, ezaugarriak eta gaitasunak onartu, baloratu, aintzat hartu eta estimatu.
- Koherentzia: Ikastetxeak burutzen dituen ekintza guztiak helburu orokorrak lortzera zuzendu. Gure jokatzeko eta lan egiteko erak erakundeak definitu dituen xedea, ikuspegia eta baloreekin erlazionatu.
- Inplikazioa: Xedearrekin eta ikuspegiaren lorpenarekin gogotsu konprometituak
- Talde lana/Elkarlana: Ezarritako helburuak lortzeko pertsona guztien arteko lankidetzeta eta babesa eguneroko lanean.
- Langileen ongizatea zaintzen duena: Entitateko pertsona guztiak asmoak, beharrak, interesak... kontutan hartu Ikastetxea kudeatzeko
- Berrikuntzako ikuspegi positiboa eta irekia: Alor metodologikoan, ikerketan, teknologikoan, kudeaketan, azpiegituretan,

ikastetxeari balio erantsia eman dezaketen berrikuntzak sustatzea.

### Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxeak Informatika teknikaria du, eta bere gain dago hardware eta software gestioa eta mantenua egitea.

- Kableatua: Lotura bikoitzeko kobrezko Switchak.
- 8 Switch Standalone.
- 2 Router.
- 1 Firewall.
- Komunikazio lerroak:
  - Kontratututako hornitzaileak: 1
  - Lerro kopurua: 2
  - 1 Lerroa: Banda zabala 300M
  - 2 Lerroa: Banda zabala 300M
- Wifi kopurua: 8
- Irakasleentzako ordenagailua gela guztietan. (100%)
- Ordenagailu portatilak: 213
- Windows duten ekipoak: 90%
- Mahaigaineko dispositiboak: 70
- 12 inpresora, 6 escaner, 19 arbel digital, 5 proiektore..
- Irakaslegoarentzako intraneta..
- Ikastetxeko web orria. Bertan kudeatutakoa...
- Zerbitzari kopurua: 4.
- Windows Defender Antibirusa.

### Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Zumaienan jakin badakigu ziklo berri bat hasteko atarian gaudela, inflexio-puntua izan daitekeena ikastetxeen eraldaketa digitaleko proiektuetan.

Gure ustez, erronka handia da gure Hezkuntza Erakundea Digitalki Gaitua bihurtzea, Europako erreferentziako esparruen arabera (DIGCOMP ORG eta DIGCOMP EDU) eta horri dagokionez diseinatzen ari diren politika instituzional berrien arabera (Hezkuntza Digitalaren Europako Plana; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Eraldaketa Digitalerako Plana).

Testuinguru horretan, uste dugu gure ikastetxea abiapuntuko egoera egokian dagoela, azken hamarkadan arlo horretan egin dugun lan handiaren ondorioz.

Hala ere, badakigu eboluzionatzen jarraitu behar dugula, kalitatezko ikaskuntza digitala, inklusiboa eta integratzailea lortzeko helburuarekin, eta bizi dugun egoera aldakorrari erantzuteko eta egokitzeko gaitasunarekin.

Era berean, aurrera egiten jarraitu nahi dugu, ikastetxearen ikuspegi global batetik. Bertan, gaitasun digitaleko eta beharrezko gaitasun digitalak dituzten ikasleak prestatzeko prestaturiko langileak izango ditugu, edozein eten digital saihestuz eta aukeraberdintasuna bermatuz.

Eta, azkenik, azken aldi honetan ikasitakotik, Ikastetxearen Digital proiektuan ondo planifikatutako erantzuna txertatu nahi dugu urrutiko ikaskuntzako balizko egoeren aurrean.

### Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu Digital hau egiteko, etengabeko lana egin behar izan dugu 2022-2023 ikasturtean.

Horrela, prozesu honetan zehar, honako jarduera hauek egin ditugu:

1. Ikastetxearen ibilbide digitala ebaluatzea, lortutako lorpenak eta oraindik lortzeke dauden helburuak identifikatuz.
2. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta ikasleek beren burua hausnartzeko prozesu bat garatzea, SELFIE tresnaren bidez.
3. Bi analisietatik ondorio egokiak ateratzea, DIGCOMP ORG ebaluazio-tresna gisa hartuta. Horretarako, ikastetxea eraldaketa

digitalaren terminoetan kokatzen saiatu gara, bertan jasotzen diren 7 arloetan.

4. AMIA batean marraztutako errealitatea sintetizatzea.

5. DIGCOMP ORGn jasotako 7 arloetako bakoitzean lortu beharreko helburu estrategikoak definitzea.

6. Egin beharreko ekintzen plana egitea, dagokion denboralizaziora pasatzeko.

7. Ebaluazio-adierazleak eta kasuan kasuko jarraipen-tresnak ezartzea.

#### **Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

Heldutasun teknologikoko eta hezkuntza-eraldaketako prozesua nola gauzatu behar genuen planteatzeko orduan, beti izan dugu abiapuntua: ezin dira izan ikastetxearen hezkuntza-proiektuari eta plan estrategikoari lotutako ekimen isolatu eta loturarik gabeak.

Ondorioz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren barruan, IPDa hezkuntza-zeregina zehazten duten oinarritzko dokumentuetako bat da, eta horren arabera, ikastetxeko eremu guztietan du eragina.

Hortik abiatuta, IPDak bere islada izango du baita ere dagokion urteko Planetan.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxeak DICOMP ORGek ezarritako helburuak zein neurritan lortu dituen zehaztu ahal izateko, Digitalki Eskuduna den Hezkuntza Erakunde bihurtzeko, SELFIE emaitzen azterketan oinarritu gara.

Esan behar dugu kasu batzuetan ez zaigula erraza egin lortutako datuak interpretatzea, baina hausnarketa bateratu baten bidez identifikatu ahal izan dugu zein izan behar den hurrengo 2-3 urteetarako horizontea, Ikastetxearen Plan Estrategikoaren eta haren Hezkuntza Proiektuaren arabera.

EMAITZEN AZTERKETA:

### 1- LIDERGOA ETA GOBERNANTZA

ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- Eraldaketa digitalaren aldeko apustu argia. Zuzendaritza-taldea konbentziturata dago pedagogikoki eta metodologikoki berritzeko beharraz. Berrikuntza horrek berekin dakar, nahitaez, teknologia berrien erabilera.
- Zuzendaritza Taldeak argi du nora jo nahi duen ikastetxeak digitalizazioari dagokionez, eta hori gaur egun lantzen ari den estrategian txertatu behar da, irakasleei helarazteko.
- IKT talde bat dugu, 4 pertsonaz osatua, ikasturte hasieran irakasleen beharren azterketa egiten duena eta jarduteko ildo eta helburu batzuk ezartzen dituena.
- Lankidetzeta-lanerako egitura bat dago Googleren Unitate Partekatuetan,

ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Ikastetxeak ez du inplementazio-planik. Irakasle guztiek partekatutako estrategia bat definitu beharko genuke, egin beharreko urratsak eta helburu komunak zehazten dituena.
- Ikastetxearen Proiektu Digitalean definitutako jarduerekin bat datozen funtzio espezifikoak eta erantzukizunak esleitu beharko genizkioke IKT koordinazioari. Horrela, IKT koordinazio bat artikulatzea lortuko da, ikastetxearen eraldaketa digitalaren motor gisa jardungo duena.
- Hodeiko eremu digitaletan lana normalizatzen eta orokortzen aurrera egin beharko genuke, elkarlaneko eta lan partekatuko jarraibideen bidez (Google)
- Eraldaketa digitalaren prozesuan lortzen ari diren aurrerapenak ikusarazi eta ezagutarazi beharko genituzke

### 2- IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA

ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- Ikaskuntza kooperatiboa eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza bezalako metodologiak lantzen dira.
- Sormena sustatzen da. Ikasleak eta langileak beren sormen-praktikak aztertzeraz eta dibertsifikatzeraz animatzen dira, eta, horretarako, teknologia digitalak erabiltzen dira sormenaren eta sormen-adierazpenaren erraztaile gisa. Hala ere, zereginak entregatzerakoan askatasuna izateko orduan, ikasleen autonomia falta sumatzen da.
- Ikastetxeak ikasleen arteko elkarlana eta talde-lana sustatzen du, kasu askotan tresna eta plataforma digitalen laguntzarekin.
- Ikasleek eskuratu beharreko oinarritzko ezagutzak definitutak ditugu, baina LOMLOEk definitutako irteera-profil berrira eguneratu beharko genuke.

ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Gaitasun digitalen mapa globala egitea, ikasleek helburu guztiak modu sistematizatuan eta zeharkakoan lortuko dituztela bermatzeko.
- Ikasleen gutxieneko gaitasun digitala programazioetan txertatu.
- IKTen erabilera arduratsu eta osasungarria bideratutako jarduerak planifikatu.
- Diziplinarteko proiektuen koordinazioa bultzatu, horien kudeaketa erraztuko duten ingurune digitalen bidez. (Classroom)

### 3- GARAPEN PROFESIONALA

ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- IKT taldeak, irakasleen gelan jartzen den paper baten bidez, irakasleen prestakuntza-eskaria aztertzen du urtero
- IKT taldeak barne-prestakuntza eman die irakasleei. Prestakuntza horiek oso emaitza onak izan dituzte ikastetxean, eta irakasleek oso positibotzat jotzen dituzte.
- Irakasleen Irakaskuntzako gaitasun digitalaren maila ebaluatu da Selfie for Teachers galdeketa bidez
- Irakasleak erraztasunez moldatzen dira ikastetxean erabiltzen diren ohiko tresnekin.
- Zumaianen prestakuntza batzuek ikastetxean itzulketa bat izan dezaten saiatzen gara (formación en cascada)

#### ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Prestakuntza-plan bat egin beharko genuke.
- Irakasleek izan ditzaketen prestakuntza-eskaerak eta beharrak aztertzeko tresna bat ezartu beharko genuke.
- Ezagutzak eta barne-esperientziak trukatzeko denborak programatu beharko genituzke.
- Jasotako prestakuntzen jarraipena eta ebaluazioa egin beharko genuke, ikasgelan zer neurritan jarri diren praktikan jakiteko.

#### 4- EBALUAZIOA

##### ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- Etengabeko ebaluazioa sustatzen ari da ikastetxean.
- Irakasleen artean ebaluazio-errubrikak erabiltzen hasi gara.
- Irakasleen autoebaluazioa eta koebaluazioa lantzen hasi gara, baina ez ingurune digitalen bidez

##### ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Ebaluazioan teknologia digitalen erabilera sustatzea, ebaluazio praktikak dibertsifikatzeko
- Ikaskuntza digitaleko teknologien erabilera bultzatzea, batez ere berdinen arteko ebaluaziora eta autoebaluaziora bideratutako ebaluazio-praktika berriak garatzeko.
- Online probako metodologiak garatzea, irakasleei eta ikasleei atzeraelikadura eman diezaieketenak

#### 5- EDUKIAK ETA KURRIKULUM

##### ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- Irakasleek edukiak landu, sortu eta berregiten dituzte, lizentzia digitalak osatzeko helburuarekin. (Blogak, sites..)
- Ikastetxean sorkuntza propioko eduki digital berritzaileak beste hornitzaile batzuek (argialetxeak) edo sortzaile batzuek (beste irakasle batzuk) emandakoekin konbinatzen dira.
- Langileak eta ikasleak noizbehinkako edukien sortzaileak dira, baina ez diote ikastetxe mailako ezein politikari erantzuten.

##### ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Irakasleen gaitasun digitalaren benetako curriculum-integrazioa bultzatu beharko genuke.
- Curriculuma eguneratu eta egokitu beharko genuke, ikaskuntza digitaleko teknologiak integratzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko.
- Driven partekatutako egitura bat sustatu beharko genuke, irakasleek sortutako edukiak gordetzeko eta partekatzeko.
- Egitura bat ezarri beharko genuke irakasleen produkzioaren biltegitratzean, haien ikaskuntza dokumentatu ahal izan dezaten.
- Irakasleen eta irakasleen baliabideak sortzen eta berregiten jarraitu beharko genuke, ikastetxeak adostutako politikaren arabera, eta gainerako irakasleekin partekatu.
- Egile-eskubideak eta lizentzia digitalak aplikatu beharko genituzke

#### 6- LANKIDETZA ETA NETWORKING

##### ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- Ikastetxean sare sozialen eta webgunearen jarraipena egiten duen komunikazio-talde bat dago.
- Zuzendari nagusiak kudeatzen ditu igotzen diren edukiak, eta zentroko teknikaria arduratzen da horiek sareetara igotzeaz.
- Zentroan beste erakunde batzuekin elkarlanean lan egiten dugu, UNESCOren proiektuen bitartez. Irakasleek ere elkarlanean lan egiten dute Agenda 2030 proiektuaren bidez.
- Irakasleak ikastetxeko kanal digitalekin lankidetzan aritzen dira, eta horiek dinamizatzen laguntzen dute, argazkien edo edukien bidez.

##### ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Ikasleek zein irakasleek jakintza trukatzeko kanpoko jarduera eta ekitaldi batzuetan parte hartzea sustatzen jarraitu beharko genuke ikastetxean.
- Praktika onak/esperientzia tekno-pedagogikoak trukatzeko saioak sustatu beharko genituzke barne-mailan.
- Lankidetzarako espazio digitalak sortu beharko genituzke, sinergiak ezartzeko, ezagutza eta barne-baliabideak ustiatzeko. (Unitate Kompartituak)
- Ezarritako politika garatzeko denborak eta espazioak esleitu beharko genituzke.
- Berriak sare sozialetan argitaratzeko Komunikazio Taldearekin dauden komunikazio-kanalak indartu beharko genituzke. Eta komunikazio-estrategia bat ezartu.

## 7- AZPIEGITURAK

### ANTZEMANDAKO INDARRAK:

- Ikastetxeak bere egunerokoan digitalki erakunde eskuduna izateko beharrezkoak diren zerbitzu digitalak integratu ditu
- Classroom ikasteko ingurune birtual gisa erabiltzea oso ohikoa da ikastetxean.
- Zumaianen kudeaketa eta mantentze informatikoko lanak aurrera eramateko langileak ditugu.
- Zumaianen, ikasleek ikasturte bakoitzean erabiltzen ikasi behar dituzten tresnen sekuentziazioa dugu.
- Zumaianen zentroko gailuak behar bezala erabiltzeko dekalogo bat dugu
- Zumaianen ekipamendu teknologiko nahikoa du bere proiektu digitala berme osoz garatzeko. (Ikasgelako baliabide digitalak etapa goiztiarretan eta 1x1 proiektua Lehen Hezkuntzako 54. mailatik aurrera)

### ANTZEMANDAKO BEHARRAK:

- Komenigarria litzateke irakasleek ikastetxeko gailu digitalak izatea eduki digitalak prestatzeko eta ikasgaiak prestatzeko.
- Azpiegituren eta espazioen inbertsio, kudeaketa eta mantentze plan bat egin beharko genuke, egungo eta etorkizuneko beharrak identifikatuz.
- Wifi sarearen kalitatea hobetu beharko genuke ikastetxean
- Ikaskuntza-ingurune birtualak (Classroom) erabiltzeko protokoloa egin beharko genuke.

## AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

#### Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikastetxearen gaitasun digitalaren curriculum-mapa ez ezagutzea.

IKD-aren integrazioa curriculum berrira eguneratzea.

IKT ekipoa, lan-karga handiarekin eta irakasleek IKTak erabiltzerakoan segurtasunik eta ezagutza handiegirik gabe.

Irakasleak ez dute izan behar adina denbora eta gailu digital, eduki digitalak prestatzeko eta ikasgaiak prestatzeko

+ Lerro bat gehitu

#### Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Administrazio Publikoaren politika aldakorrak.

Errealitate teknopedagogikoaren etengabeko aldaketa.

+ Lerro bat gehitu

### Faktore positiboak

#### Indarguneak (barne-faktoreak)

Eraldaketa digitala lortzera bideratutako jarduera-ildoak garatzen jarraitzearen aldeko apustu garbia egiten duen zuzendaritza-taldea.

Esperientzia proiektuen kudeaketan.

Irakaskuntza-prozesuak, administrazioa eta kudeaketa sistematizatuak.

IKT ekipo sendoa eta inplikatuak.

Ikasgelan teknologia berriak erabiltzeko prest dauden irakasleak.

+ Lerro bat gehitu

#### Aukerak (kanpo-faktoreak)

Eusko Jaurlaritzak eskatutako akreditazio digitalen prozesua.

Hezkuntza Lege berria

+ Lerro bat gehitu



## Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

### Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- Aprobetxatuz eskolak duen esperientzia proiektuen kudeaketan, lankidetzaren proiektu eta -dinamikei berriro ekiteko aukera bultzatzea.
- Eraldaketa digitala garatzeko apustu egiten duen zuzendaritza-taldea daukagunez, rol eta eredu pedagogikoak birplanteatzea Ikasleen Konpetentzia Digitala zeharka bultzatuz.
- Irakaskuntza-prozeduak, administrazioa eta kudeaketa sistematizatuak esker, daukagun IKT talde sendo eta inplikatuak baliabide teknologikoen eta ez-teknologikoen errendimendua hobetu dezake.
- Aprobetxatuz gure irakasleak ikasgelan teknologia berriak erabiltzeko prest daudela, gaitasun digitalean egiaztatuko dira, tresna digital berriak ezagutu ditzaten.

### Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- Ikasleen Konpetentzia Digitalaren integrazioa curriculum berrira eguneratzeko, rol eta eredu pedagogikoak birplanteatzea, lankidetzaren proiektu eta -dinamikak eginez.
- Ikastetxearen gaitasun digitalaren curriculum-mapa ezagutzeko, Ikasleen Konpetentzia Digitala zeharka bultzatzea.
- IKT taldearen lan-karga txikitzeko eta irakasleek IKTak erabiltzerakoan segurtasun eta ezagutza adina edukitzeko, ditugun baliabide teknologiko eta ez teknologikoen aprobetxamendua lortzea, irakaslearen gaitasun digitala hobetzeko formakuntza egine

### Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

- Eraldaketa digitala lortzeko apustu egiten duen zuzendaritza-taldeak eta IKT ekipo sendo eta inplikatuak proiektuen kudeaketan daukaten esperientziari esker, hornidura teknologikoak eskuratzeko bekak edo laguntzak eskuratzea, eten digitala ez izateko.
- Irakaskuntza-prozesuak, administrazioa eta kudeaketa sistematizatuak optimizatuz, ikasgelan teknologia berriak erabiltzeko prest dauden irakasleak esker, irakasleek gaitasun digitalaren bidez ofizialki egiaztatzea.

### Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

- Irakasleek ofizialki egiaztatzen badira, IKT taldearen karga jaitea.
- Ikastetxearen gaitasun digitalaren curriculum-mapa zehaztean, Ikasleen Konpetentzia Digitalaren integrazioa lortuz, hornidura teknologikoak eskuratzeko erraztasun handiagoa izatea.



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
<b>Ikastetxearen orain arteko estrategia digitala sendotu, proiektu digital bat eginez eta hura koordinatuko duen antolaketa-egitura bat definitu, ikastetxea eraldaketa digitalaren arloan erreferente bihurtu.</b>		
Deskriptorea	Epea	
LG 3.2 Zuzendaritzaren erantzukizuna argi esleituta dago		
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.2 A1 Ikasketa-buruak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearekin bat etorritik, iraka	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
LG.1- Ikastetxearen proiektu digitala (PDC) egin	Proiektu Digitalaren ereduak	IKT	31/05/2023	Egina
LG 2 - Irakasleei proiektu digitala aurkeztu	Proiektu Digitala	IKT	15/09/2023	Egina
LG 3 - IKT taldearen eta ikastetxeko teknikariaren funtzioak definitu	Proiektu Digitala	IKT Teknikoa Zuzendaria	28/06/2023	Egina
LG 4 - IKT taldearen aldizkako bilerak ezartu	Ikt taldearen eta ikastetxeko teknikariaren funtzioak	IKT Teknikoa Zuzendaria	28/06/2023	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua			
Ikasleen Gaitasun digitaleko gaitasun-markoa curriculum berrira eguneratu, programazioetara eraman eta lorpen-adierazleak eta ebaluazio-irizpideak ezarri.			
Deskriptorea			Epea
II 1.3 Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalaren (GD) konparatiboa egiten da.			30/06/2025
Adierazlea		Mota	Helmuga
II 1.3 A2 Unitate didaktiko eta programazioetan ikasleen gaitasun digitalaren irizpideak txertatu dira.		Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
II 1 - Ikasleen kompetentzia digitalaren irteera-profila zekuentzializatu (mailaka)	Ikasleen kompetentzia digitalaren irteera profila	IKT	21/12/2023	Egina
II 2 - Egiaztatu zer neurritan ari garen lanean balizko hutsuneak identifikatzeko	Ikasleen kompetentzia digitalaren irteera-profila zekuentzia	IKT	30/06/2024	Egina
II 3 - Ikasleen produkzioa Google Driven biltegitzeko egitura definitu	Google Docs	IKT	15/09/2023	Egina
II 4 - Ikasleen produkzioa Google Driven biltegitzeko definitutako egitura aplikatu	Ikasleen produkzioa Google Driven biltegitzeko definitutako egitura	Tutoreak	30/09/2023	Egina
II 5 - Diziplinarteko proiektuen koordinazioa bultzatu, horien kudeaketa erraztuko duten ingurune digitalen bidez. (Classroom)	Classroom	Proiektu bakoitzaren arduraduna	30/06/2023	Egina
II 6 - Tutoretzako Ekintza Planean ikasleekin IKTen erabilera arduratsu eta osasungarriari lotutako jarduerak txertatu	Kurtsoaren hasieran ikasleekin dekalogoia prestatu. Orainprebentzioako formakuntzak	IKT	30/06/2024	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## GP Garapen profesionala

Helburua		
<b>Ikastetxeko langileek beren gaitasun digitala garatu eta egiazta dezaten lortu, Administrazio Publikoak horri buruz ezartzen dituen egiaztapenak lortzeko.</b>		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokatu dago banakako eta antolatutako premiekin	30/06/2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakasku	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
GP 1 - Langile berrientzat protokolo bat ezartzea, ikastetxean erabilitako tresnak eta ezarritako estrategia digitala eguneratzeko.	Google Sites Google Classroom	IKT	30/06/2025	Egina
GP 2 - Irakasleen prestakuntza-eskaerak aztertzeko tresna bat ezarri	Google Forms	ikt	30/09/2023	Egina
GP 3 -Irakasleen autoebaluazioa hausnartzeko galdetegia bidali	Galdetegia Isaakekin bilerak	Zuzendaria	30/06/2023	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EJ Ebaluazio jardunbideak

### Helburua

Ebaluazio digitaleko metodo berritzaileak integratu, ikasleen berrelikadura, autoeflexioa eta koebaluazioa errazteko.

### Deskriptorea

EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da

Epea

### Adierazlea

Mota

Helmuga

EJ 1.2 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek

Bai/Ez

Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
EJ 1 - Ziklo/etapa mailan erabilitako ebaluazio-tresnak identifikatu	Koordinazio bilerak	IKT	30/06/2023	Egina
EJ 2 - Prestakuntza-ebaluaziorako tresnen oinarritzko kit bat definitu	Sites IKT	IKT	30/09/2023	Egina
EJ 3 - Zentroko errubriken gordailua egin	Unitate Partekatuen egitura	IKT Teknikaria	21/12/2023	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EC Edukiak eta curriculuma

### Helburua

Curriculum berrira egokitu, ikasleen gaitasun digitala benetan integratu eta edukien sorkuntza bultzatu

Deskriptorea

Epea

EC 2.1 Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko

Adierazlea

Mota

Helmuga

EC 2.1 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare

Bai/Ez

Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
EC 1 - Programazioak Hezkuntzako Lege berrira egokitu	Programazioak	Irakasleak	31/10/2023	
EC 2 - Hezkuntza-programazioak aldian behin berrikusi eta ikaskuntza digitalaren errealitate aldakorrera egokitu	Programazioak	Irakasleak	30/06/2025	
EC 3 - Google Driven Unitate partekatutako egitura bat sortu, sortutako edukiak biltegitratzeko eta partekatzeko.	Google Drive	IKT Teknikaria	21/12/2023	
EC 4 - Unitate Partekatuen karpitetara sartzeko protokolo bat sortu	Google Drive	IKT Teknikaria	21/12/2023	
EC 5 - Irakasleak egile-eskubideei eta CC lizentzien inguruan prestatu	Sites IKT	IKT	30/09/2023	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
<b>Barneko jardunbide egokien saioak eta kanpoko lankidetzak posibleak planifikatu</b>		
Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	30/06/2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
EN 1 - Ezagutzaren trukea sustatu eta praktika onak partekatzeko saioak planifikatu	Hilabeteko ordu osagarrien plangintza	IKT	30/09/2023	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## AZ Azpiegiturak

### Helburua

#### Antzemandako premien araberako inbertsio-plan bat egin

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.2 Ezagutza aditu pedagogiko eta teknikoek gidatzen dituzte teknologia digitaletako inbertsioak		
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.2 A1 Ikastetxeak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearen bitartez, Hezkuntza Sai	Bai/Ez	Bai

#### + Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
AZ 1 -Teknologia hobetzeko/eskuratze premien etengabeko ebaluazioa egitea eta eskuratze-plan bat sortu	Google Drive	IKT Teknikaria Zuzendaria		Egina
AZ 2 -Zentroaren konektagarritasuna berrikusi	Google Drive	Teknikaria		Egina

#### + Ekintza gehitu

#### + Helburu gehitu



## IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua		
Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxearen orain arteko estrategia digitala sendotu, proiektu digital bat eginez eta hura koordinatuko duen antolaketa-egitura bat definitu, ikastetxea eraldaketa digitalaren arloan erreferente bihurtu dadin.	Urtean behin	Google Drive	IKT Zuzendaritza		
II	Ikasleen Gaitasun digitaleko gaitasun-markoa curriculum berrira eguneratu, programazioetara eraman eta lorpen-adierazleak eta ebaluazio-irizpideak ezarri.	Urtean behin	Google Drive	IKT		
GP	Ikastetxeko langileek beren gaitasun digitala garatu eta egiazta dezaten lortu, Administrazio Publikoak horri buruz ezartzen dituen egiaztapenak lortzeko.	Urtean behin	Google Drive	IKT		
EJ	Ebaluazio digitaleko metodo berritzaileak integratu, ikasleen berrelikadura, autoeflexioa eta koebaluazioa errazteko.	Hiruhilabetean behin	Google Drive	Klaustora		
EC	Curriculum berrira egokitu, ikasleen gaitasun digitala benetan integratu eta edukien sorkuntza bultzatu	Urtean behin	Google Drive	Klaustroa		
EN	Barneko jardunbide egokien saioak eta kanpoko lankidetzaren posibleak planifikatu	Urtean behin	Google Drive	IKT		
AZ	Antzemandako premien arabera inbertsio-plan bat egin	Urtean behin	Google Drive	IKT Zuzendaritza IKT teknikaria		
IB						